



Iritziak

Produktibitatea eta lan gatazkak



ENDIKA ALABORT
AMUNDARAIN
EKONOMIALARIA

Bizkaiko metalgintza sektorea gatazkan dago. Hainbeste sektoretan moduan, lan hitzarmena zenbait urte berri gabe darama, langileen soldata murrizketa eta lan baldintzen okertzea eraginez. Bitartean, soldata hazkundea produktibitateari lotzea eta lanaldiaren esleipen irregular bat jartzeko malgutasun handiagoa babesten ari da sektore honetako patronala. Ekonomiaren testuinguruak ez du negoziazioa batere laguntzen.

Sektoreko patronala, bi elementu horiei eusterakoan, azken hamarkada hauetan enpresa munduan oso landutako kontzeptuak erabiltzen ari da. Malgutasuna, talentua eta "soldata emozionala"-k, soldata enpresari egindako ekarpenaren arabera izatea oso kontzeptu postmodernoak dirudite. Baina atzean dagoena ekonomia neoklasiko estandarra da, hots, analisi neoliberal klasikoa. Soldata hazkundea produktibitateari lotzen hasten zaionean, helburua harago doa: soldata produktibitatearen arabera ordaintzea. Azken hamarkadako lan erreformen helburua hori izan da. Ordea, kontua da mundu errealean ekonomia eskola horrek huts egiten duela. Baina hori patronalei bost axola. Kapitalaren aldeko teoria baita.

Gai horren beste irakurketa bat egingo dut: produktibitatea aipatzen da, elementu zehatz eta neurgarria balitz bezala. Ekonomistok sarritan hainbat azalpenetan erabili dugun kontzeptua

Bizkaiko metalgintza sektoreko patronalak dituen bi helburuak, produktibitatearen arabera soldata eta lan jardunaldi malgua, kapitalismoaren sorreratik izan dira helburu

da. Ekonomia bere osotasunean aztertzeke orduan erabil daiteke dituen zehatzgabetasunekin. Baina posible al da langile baten produktibitate erreala zehaztea eta horren arabera soldata ordaintzea? Lanaldi batean ekoizten denaren arabera, adibidez. Beno, horrela balitz, agian bitarteko agintari eta nagusi askok euren soldata maila galduko lukete, ezta? Nola neurtuko genuke ekoizpen hori? Erantzun zaila duen galdera erraza.

XIX. mendeko anarkistek eztabaida bera izan zuten. Kolektibistek pertsona batek enplegatutako orduen arabera izatea proposatzen zuten; anarkokomunistek, aldiz, analisi horri kritika zorrotza egiten zioten, produktu baten ekoizpenean langile batek egindako ekarpena zehaztea ezinezkoa delako. Horren ondorioz, azken hauek soldata-sistema desagertzeko borrokatu zuten.

Eztabaida zaharra, bai, baina gaur-

kotasun handikoa. Lana eta bizitzaren arteko gatazkan, bizitza erdigunean jartzeari eskatzen denean, anarkokomunista askok egindako planteamenduekin bat egiten dute: soldata-sistema harreman sozioekonomikoen neurria bada, zein da lanari, zaintzei, geratzen zaien lekua?

Bizkaiko metalgintza sektoreko patronalak dituen bi helburuak, produktibitatearen arabera soldata eta lan jardunaldi malgua, kapitalismoaren sorreratik izan dira helburu. Lanaldiaren esleipen irregular bat jartzeko malgutasuna, sektore anitzetan onartuta dagoena, patrioiaren alde aplikatzen da ia kasu guztietan. Gero lana eta familia bateragarri egiteko laguntzak aipatuko dira, baina testuinguru prekarizatu honetan enpresaren aldeko malgutasun neurriekin, ez da posible. Produktibitatearen arabera soldata, erabat irreal da sistema hori: nola neurtu eta inputatu produktu bat ekoizteko erabili den enplegu eta lan kopurua? Kaleitsu batean sartzea bezala da.

Horregatik kontzeptu horiei kritika zorrotza egitea beharrezkoa da. Bizkaiko metalgintzako patronalak proposatzen duenari aurre egin behar zaio. Pauso pauso, hainbat sektoretan hedatuz. Soldata-sistemarekin bukatzeak agian erradikala dirudi, baina hausnartuz gero, etorkizuneko aukera bat izan liteke. Azken finean, jokoan dagoena bizitzaren iraunkortasuna da eta. ●